



Liquids

Revista d'estudis
literaris ibèrics

Nº 3, 2009, pp. 1-2

Issn: 1998-2513

EDITORIALA

TATIANA JORDÁ

EVA SOLER

Literatura genero batetik bestera, eta handik beste arte-genero batera bidaiatzen diren topikoak, gaiak eta pertsonaiak; lekualdatze prozesuan eredu berriari egokitzeko eraldatzen diren testuak, irudiak eta soinuak...

Artelan bat beste genero berri batera moldatzeko prozesua, irakurlearen eskaera betetzeko saio bat izan daiteke: bere ahozko kulturaren mito eta sinboloak olerki lirikoetan ere irakurri nahi dituelako; eleberrietan irakurri dituen istorio berdinak antzezlanetan ikusi nahi dituelako, edo liburuetakoko heroiak zineman irudikatuta ikusteko zain dagoelako. Baina beste batzuetan, moldatze prozesu hori behartua izan daiteke: ikus-entzunezko arteetan, adibidez, testuak erabiltzeak hitz idatziaren eduki intelektual esplizitua ematen die materialei (batez ere literaturaren izen ona behar denean). Beren koartada da. Edozein modutan, hizkuntza artistikoaz aldatzean, testua genero berriaren ohiko narrazio-mekanismoetara moldatu behar da.

Bestalde, arrakasta handiagoa lortu duten gaiak, mitoak edo pertsonaiak daude literaturan, eta bertan irauten dute eraldatze eta komunikazio ekintza berriak onartzen dituztelako. Askotan, literatura tradizio baten gaiak edo pertsonaiek mugak gainditzen dituzte eta beste literaturetara pasatzen dira, edo beste literatura horrekin duen kontaktuaren ondorioz aldatzen dira. Artea

etengabeko mugimendu honi esker bizirik mantentzen dela dirudi; ez da zisku itxi batean gordetzen, bizitza honetan eta bizitza honetarako sortua izan baita. Artistek mugimendu horretan murgilduta bizi behar dute, eta euren talentuari esker moldatu behar dira, eguzkiaren argia bilatzen duen zuhaitza bezala.

Liquids aldizkariaren ale honetan, guzti honi buruz hausnartu nahi izan dugu, zenbait alderdi ezberdinei so eginez: adibidez, “Don Juan”-en topikoak XX. mendeko antzerkian izan zuen bilakaera, edo Minotauroaren mito klasikoak eta bere egokitzapenak Errenazimentu eta XX. mendean izan zuena. Bestalde, aipamenen atalean, iraupen eta moldaketa fenomeno hauen beste irakurketa kritiko edo artistikoak eskaintzen dira: gazte-literaturak egiten duen Gerra Zibilaren tratamendua, edo artearen eta pinturaren arteko harremanak, hain zuzen ere. Azkenik, sormenaren atalean, artearen ezaugarri aldakor hau erakusten duten lau dramagileen zazpi lan biltzen dira. Bertan emakumeek (bat eta anitza, aldi berean) gizartea eta antzerkia nola ikusten duten erakusten da: begirada koherente baina dibergentea, aldizkari honek bere jaiotzatik nahi izan duen bezala.